

Iñaki Aginaga bekaren lehen deialdia  
2024ko maiatza

OINARRIAK

## 1. XEDEA

Beka honen xede nagusia Iñaki Aginaga Beristain zenaren figura omentzea da, hark utzitako ondare ideologikoaren inguruko ikerketa eta ezagutarazte lanen bidez.

Izan ere, beka honen deitzaileak, Orreaga Taldeak, uste du sekulako arrakala dagoela Iñaki Aginagaren ekarpen ideologikoaren tamaina eskergaren eta hari buruzko ezagutza urriaren artean.

## 2. ZENBATEKOA

Bekaren zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da.

## 3. HIZKUNTZA

Euskaraz aurkeztutako proiektuak, azterlanak eta memoriak lehenetsiko ditugu.

## 4. NORKE MAN DEZAKE IZENA

Beka norbanakoek edota deialdirako berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, lantaldeak zuzendari arduradun bat izendatu beharko du.

## 5. AURKEZPEN-EPEA ETA BEKAREN IRAUPENA

Proposamenak aurkezteko epea 2024ko irailaren 30ean amaituko da, eta epaimahaiak, aurkeztutako lanak aztertu ostean, 2024ko urriaren 31n jakinaraziko du saritutako lana zein den.

Egun horretatik aurrera, 2025eko apirilaren 30a arteko epea izango du saridunak lana aurkezteko.

### 5.1. ESKAERA EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Beka eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

- a) Egilearen edo egile-taldearen aurkezpen laburra, egoki iritziz gero curriculumaren kontu nabarmenenak ere aipatuz.
- b) Gaiaren azalpena eta lana nola egingo litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (15 orrialdekoa gehienez), hauek azalduz:
  - Egilearen edo taldearen aurreko esperientzia.
  - Helburuak.
  - Lana aurkezteko euskarriaren azalpena (idatzizkoa, ikusentzunezkoa, ...) eta gutxieneko luzera (minutuak, orri kopurua, ...).

- Baliabideak eta lan-metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.

## 6. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa 2024ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da, honako helbide elektronikoa honetara mezu bat bidaliz: [info@orreaga.eus](mailto:info@orreaga.eus). Bertan, dokumentazio guztia atxiki beharko da, edota dokumentu guztiak PDF bihurtu, karpeta bakar batean bildu, eta hau hodeian eskuratzeko esteka bidali beharko da aipaturiko helbidera posta elektronikoz.

## 7. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

7.1. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren arabeko txosten bat bidaltzea bekaren lehen 3 hilabeteak igarotakoan, hau da, 2025eko urtarrilaren 31 baino lehen.

7.2. Bekaren sei hilabeteak igarotakoan, 2025eko apirilak 30 baino lehen, lanaren beraren azken erredakzioa (edo dagokion bestelako euskarria) aurkeztea.

7.3. Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, amaierako testuan sartuko diren arren, aparteko fitxategietan entregatu beharko dira, gutxienez hazbeteko 150 pixeleko bereizmenarekin. Bekaduna bera, aurkeztutako ilustrazioen ustiapen eskubideen egilea/titularra izango da, baita etorri litezkeen irudi eskubideena ere, eta argitaratzeko beharrezkoak diren baimena nahikoak izango ditu.

7.4. Egileak konpromisoa hartzen du bekarako lana bukatutakoan haren jendarteratzean eta zabalkundearen parte hartzeko. Horretarako, gutxienez, pare bat agerraldi aurreikusiko ditu, hedabideen aurrean zein jendaurrean, betiere Orreaga Taldearekin adostu ondoren.

7.5. Lanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, 9. puntuko azken paragrafoan biltzen dena erabaki dezake.

## 8. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak egin ondoren:

- Kopuru osoaren % 30, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren % 30, beka ematen denetik hiru hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (7.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.
- Gainontzeko % 40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta hilabete bateko epean epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Lana amaitzen ez bada, oinarri hauetako 10. puntua (itzulketak eta kalte-ordainak) hartuko da oinarritzat.

## 9. EPAIMAHAIA ETA IRIZPIDEAK

Orreaga Taldeak epaimahaia hautatuko du, Iñaki Aginagaren figuraren gaineko adituekin osatua.

Epaimahaiaren erabakia 2025eko maiatzaren 30ean jakinaraziko da publikoki. Hala ere, antolatzaileak aurretik izango du erabakiaren berri, eta bekaren irabazleei ere esango zaie, ekitaldiaren egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.

Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan saria emateko:

Lanaren kalitatea, zuzentasuna, erakargarritasuna eta originaltasuna; hizkuntzaren egokitasuna; irudien eta grafikoen kalitatea eta aberastasuna.

Epaimahaiak, prozesuaren edozein momentutan, eman gabe utzi dezake saria, aurkeztutako laginek edo proiektuek gutxienerako kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituztela iritziz gero.

## 10. ITZULKETAK ETA KALTE-ORDAINAK

Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako lana aurkezteko azken epea bukatu baino lehen eta Orreaga Taldeak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez sariari uko egiten badio, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## 11. LANEN JABETZA

Saritutako lanak Creative Commons AITORTU-EZ KOMERTZIAL-OBRA ERATORRIRIK GABE lizentziapean zabalduko dira. Informazio gehiagorako, ikus <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/> esteka.

Proiektuaren zein azken emaitzaren jabea Orreaga Taldea izango da, eta bereak izango dira lana argitaratzeko, ustiatzeko eta hedatzeko eskubideak.

Lanaren emaitzan argi azaldu behar da bekaren laguntzarekin gauzatu dela, esaldi honen bidez:

“Lan hau 2024an Orreaga Taldeak emandako Iñaki Aginaga bekaren laguntzarekin egin da”.

Orreaga Taldeak berarentzat gordetzen du lanak osoki edota partzialki erreproduzitzeko, argitaratzeko eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen batekin sinatutako hitzarmenaren arabera.